

Tere Inastortza

IDAZLEA

## Agorra

**A** buztua, udaren erdian, opor-hilabete bihurtu da. Denok, derrigor, atze-aurre-rako omen gara, eta abuztukoa lasaitzeko, egoteko, ez ezer egiteko txanda dugu; gure gizartean, orain, ba omen dago-eta aisialdirako denbora.

Garaiek, aldiek eta denborak gizarteari ematen dizkioten lanak izan ere! Itxura batera, berezko sena uzten joan den neurrian, gizakia denborak obsesionatuta bizi da. Horregatik edo, denbora menderatzeko ahaleginari eman dio mendebaldeko kulturak denborarik balio-tsuen. Horretarako, urtaroak aurrena, hilabeteak gero, aste eta jaiak hurrena, eta azkenean, egunak eta eguneko orduak nola eta zertan eman zehazten eta gizartea horren arabera antolatzen egokitu dira orduak, egunak, urteak eta mendeak. Gure artean Joannes Etxeberrikoa izango zen ordu profano eta sakratuak bereizi orde, ordu guztiak sakratu bihurtzeko ahaleginean gehien tematu zen idazlea.

Egun, ordea, batzuen aisialdiak beste batzuen lanaldia osatzen du eta, aste eta jaien banaketa mundu sakralizatutik bereizteko ahaleginean dabilta aspaldian gure agintariak. Orain aisia zesuma egotearen sinonimo bihurtu da, eta aisialdia, berriz, norberak nahi –behar omen– duena besteek opatuko diguten aro ekonomiko, errepikagarri gertatu den aukera-multzo batzuen arabera.

Batzuek, aldi honetako turistifikazio prozesuaz aritzerakoan, Thorstein Veble-



DANI BLANCO

nen klase astidunaz aritzeari ekin diote, gure gizarte industrialak besteak baino asti gehiago sortu izan balu bezala. Baina 1899an argitara emandako liburu honek ez du fitsik esaten turistei buruz, nahiz eta luze-zabal jo, kontsumoa ikur-sozial gisara erabiltzen duen giza-taldeaz, eta lan-mundutik urrundu den klaseaz.

Jardun, Veblen, zientziagile eta intelektualez jardun zen, haien deskribapena eginez. Eta gaur-gaurko begiekin bete-betean asmatu zuelakoan nago. Izan ere, orokorrean agintetik eragindako komunikabideetatik sortutako gorroto, mendeku eta beldur egoera honetan (gaixotasunak, langabezia, estatuaren desintegrazioa...) intelektuatzat daukagun klasearen deskribapena zehatza gertatzen da: ez dago denbora berririk aditzeko ez sortzeko irrikarik, ez dago astia ez duten klaseekiko identifikaziorik. Aldiz, oraingo klase astitsuak ere produkzio baliabide, baliabide estetiko eta ikasketa baliabideen kontrolari eusten dio, bere entengabeko eta isilune gabeko jardunean.

Horregatik ere, arituan-arituan, guztion astialdiak xurgatu eta guztion baitatik sor daitekeen ur-xume edo ur-emia agortzeaz dagoela ematen zuen bero-sapa egun haue-tan. Horregatik ere abuztua, opor garaia baino gehiago agor edo agorril iruditu zait, eta euskal jendea, asti-egarriz errepikagarri bihurtu diren egoeretara egokituz, norantza gabeko turista taldea. ■

« Abuztua opor garaia

baino gehiago

agor iruditu zait,

eta euskal jendea,

norantza gabeko

turista taldea

»

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ohi bezala, koadrila guztiak beren prestakuntza-  
ren gailurrera estropadaz  
estropada abian datoz.

Ohi ez bezala, kanpokoak bertan gelditzen dira kontzentratu-  
rik sailkapena xede. Iragan hurbilean  
dozena erdi estropada besterik antolatzen ez zirenean,  
ekainean hasten ziren koadrilak osatzen bailaraka.  
Orduko traineruek beren bailararen ordezkari-  
tzatizio handieneko herriari ematen zioten. Egun, klubek  
ordezkatzen dute izena, eta zenbait izan baten bila  
dabil bere uretan hazitako arraunlariak bereganatu ezi-  
nik. Profesionalak batzuk, ohiko eran gehienak, denak

## Kontxa

ere hamaika hilabete prestakun-  
tzan. Normaltzen doa arraunlari-  
tza, saskibaloian, eskubaloian eta  
aurki kirol profesional guztietan  
bezalaxe, esponsoraren izenpean izana mantendu  
nahian. Iragan hurbilean estropalari gehien izenean,  
Kontxarenean, hainbat prestatzaile eta lemazain koad-  
rila osatuz prentsaren aurrean presoekiko beren atxi-  
kimendua adierazi nahi izaten zuten, inguruaren poze-  
rako. Hondar urtetan, haizea esponsor edo, airatu dira  
eta ez dute erakutsi horrelakorik, jada puntako kirola-  
rien autismoak harrapatu bailituen. Beti bizirik dut  
erratuko naizen esperantza. ■